

# Zumaiako Emakumeon\* Etxea

**2023** IRAILA - ABENDUA

zerbitzuak

eskola feminista

agenda

elkarguneak

jabetze eskola



## Zumaiako Emakumeon\* Etxea

San Telmo kalea 19 (Sarrera Martxoaren 8a plazatik)

### **Etxearen ordutegia**

Astelehen, astearte eta ostegunak 09:30-12:30 /  
17:00-20:30

Asteazkenak 09:30-20:30

Ostiralak 09:30-12:30

Lunes, martes y jueves 09:30-12:30 / 17:00-20:30

Miércoles 09:30-20:30

Viernes 09:30-12:30

### **Harremanetarako**

633 43 27 62 (telefonoa eta whatsapp)  
info@zumaiakoemakumeonetxea.eus

[www.zumaiakoemakumeonetxea.eus](http://www.zumaiakoemakumeonetxea.eus)

Facebook: Zumaiako Emakumeon Etxea

Instagram: @zumaiakoemakumeonetxea

# Emakumeon\* Etxea, gizarte parekidearen bidean aurrera egiteko topagunea.

Emakumeon\* Etxea,  
un punto de encuentro  
para avanzar hacia una  
sociedad igualitaria.

Eskuartean duzuen Zumaiako Emakumeon\* Etxeko udazkeneko egitarauaren liburuxka da.

Egitarau honekin gure helburuak betetzen jarraitu nahi dugu: gizarte parekidea eraiki; emakumeon\* arteko sareak sortu eta indartu; indarkeria matxistarik gabeko elkarbizitza sustatu; emakumeon\* ahalduntzea eta partaidetza landu eta ikuspegi feministatik eztabaida, gogoeta eta aldaketak piztu.

Zumaiako Emakumeon\* Etxea elkarteko bazkide izan nahi baduzu, etorri etxera edo bete inprimakia gure webgunean.

Zatoz.

En vuestras manos tenéis la programación de otoño de la Casa de Mujeres\* de Zumaia, con el que queremos seguir cumpliendo nuestros objetivos: construir una sociedad paritaria; crear y fortalecer redes entre mujeres\*; promover una convivencia libre de violencia machista; trabajar el empoderamiento y la participación de las mujeres\* y suscitar debate, reflexión y cambios desde una perspectiva feminista.

Si quieres ser socia de la asociación Zumaiako Emakumeon\* Etxea, acércate a la casa o rellena el formulario en nuestra página web.

# jabetze eskola

**Eskolaren helburua da emakumeon\* jabetze edo ahalduntze prozesuan eragitea, hainbat tailer eta ikastaroren bidez. Geure burua eta ingurua ikuspegi feministatik aztertuko ditugu bertan, eta aldaketa pertsonal eta kolektiboak egiteko tresnak eskuratuko ditugu.**

El objetivo de la escuela es incidir en el proceso de empoderamiento de las mujeres\* a través de diferentes talleres y cursos. Nos analizaremos a nosotras mismas y al entorno desde una perspectiva feminista, y nos dotaremos de herramientas para realizar cambios personales y colectivos.

## **Izen-ematea**

Irailaren 11tik 22ra

Emakumeon\* Etxean edo webgunean

## **Inscripción**

Del 11 al 22 de septiembre

En Emakumeon\* Etxea o en la página web

## Oharrak

Jabetze eskolako ikastaroek plaza mugatuak dituzte; beraz, bertan parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea.

Ikastaroetan plazak betetzen badira, zozketa bidez osatuko dira taldeak. Eta kasu honetan, elkarteko bazkideek izango dute lehentasuna.

Izen ematea irailaren 11tik 22ra izango da. Plazak libre geratuz gero, ikasturtean zehar aukera egongo da izena emateko.

Aurten lehen aldiz, webgunetik izena emateko aukera egongo da, [www.zumaiakoemakumeonetxea.eus](http://www.zumaiakoemakumeonetxea.eus) helbidean.

## Observaciones

Los cursos de Jabetze eskola tienen plazas limitadas, por lo que será necesario inscribirse previamente.

En caso de que se completen las plazas de los cursos, se los grupos se formarán por sorteo. Y en este caso, tendrán preferencia las socias de la asociación.

La inscripción será del 11 al 22 de septiembre. Si quedan plazas libres, habrá posibilidad de inscribirse más adelante.

Por primera vez se podrá inscribirse desde la web [www.zumaiakoemakumeonetxea.eus](http://www.zumaiakoemakumeonetxea.eus)

# Sukaldaritza agroekologikoa

Maitane Cabeza Bastias “Koxinatuz”

**Irailak 27, urriak 11, 25, azaroak 8, 22 eta abenduak 13 (6 saio)**

Asteazkenak, 18:00-20:00

## Euskaraz

Sukaldaritza agroekologikoan eta begetarianoan oinarritutako eduki teoriko eta praktikoa trebatzeko tailerra izango da.

Besteak beste, landa eremuko biziaren eta elikadura burujabetzaren garrantziaz arituko gara; bertako eta sasoiko elikagaiak erabiliz, urtaroen arabera kozinatzearen garrantzia ezagutuko dugu; teknika eta prozedura ezberdinak ikasiko ditugu eta sormena landuko dugu.

---

**Sukaldaritza agroekologikoa.** Taller en euskera.

En este taller práctico de cocina agroecológica, nos capacitamos en cocina creativa y vegetariana utilizando diferentes técnicas culinarias. Para ello utilizaremos productos locales y de temporada adaptándonos a los ciclos de la naturaleza y dispondremos de un espacio colectivo para reflexionar sobre la vida rural y el rol de las mujeres campesinas.

# Bizitza zoriontsurako giltzak

Itziar Mora Olazagoitia

**Irailak 30, urriak 14, 28, azaroak 11, 25 eta abenduak 16**

Larunbatak, 09:30-14:00 / 16:00-19:30

## Elebiduna

Egunero bizitzak aurrean jartzen dizkigun errorrak, zailtasunak, gaixotasunak, minak... arinago eramaten ikasiko dugu, taldeka zein bakarka lan eginez.

Eta horretarako baliatu daitezkeen tresnak erabiltzen ikasiko dugu: bisualizazioak, emozioen gida, testatzeak, jolasak eta nork bere burua ezagutzeko beste hainbat tresna.

---

**Claves para vivir más feliz.** Taller bilingüe. **30 de septiembre, 14, 28 de octubre, 11, 25 de noviembre y 16 de diciembre.** Los sábados, 09:30-14:00 / 16:00-19:30.

Aprenderemos a sobrellevar de manera más llevadera los retos, las dificultades, las enfermedades, los dolores... que surgen en la vida, trabajando tanto en grupo como individualmente. Y aprenderemos a utilizar diferentes herramientas para ello: visualizaciones, guía de emociones, testeos, juegos y otras herramientas de autoconocimiento.

# Emakume basatiak

Maider Gastesi Mendizabal

**Urriaren 2an hasita maiatzera arte**

Astelehenak, 10:00-11:30

## Euskaraz

*Mujeres que corren con lobos* liburua oinarri hartuta, emakume izatea aztertuko dugu. Barne bidaia honetan, gizarteak inposatu dizkigun rol zurrun eta mingarri horiek eraldatzeko bideari ekingo diogu, norbere desio, behar, iritzi eta bizipenak indartuz, sendatuz eta, horrela, azkenik, "emakume basati" hori azalera tzea lortzen.

---

**Mujeres salvajes.** Taller en euskera.

Basándonos en el libro "Mujeres que corren con lobos", analizaremos nuestra condición de mujer. En este viaje interno emprenderemos el camino para transformar los rígidos y dolorosos roles que la sociedad nos ha impuesto, fortaleciendo y sanando nuestros deseos, necesidades, opiniones y vivencias, para al final, buscar que aflore nuestra "mujer salvaje" interior.

# Abdominalak egin arriskurik gabe

Eneritz Gallastegi Lazkano

**Urriak 2, 16, 23, 30 eta azaroak 6 (5 saio)**

Astelehenak, 18:00-19:00

## Elebiduna

Zoru pelbikoan presiorik eragin gabe abdominalak landuko ditugu ikastaroan. Mugimendu horietan gihar abdominalak indartzeaz gain, haiek luzatu eta lasaituko dira. Abdominal horiek modu eraginkorrean erantzun dezaten eta zoru pelbiko zein pareta abdominalean kalterik sortu ez dezaten sustatuko dugu.

\* Ikastaroa lehenago parte hartu duten emakumeei zuzendurik dago. Urtarrietik aurrera eskainiko da hasiberrientzako ikastaroa.

---

**Realizar abdominales sin riesgo.** Taller bilingüe.  
**2, 16, 23, 30 de octubre y 6 de noviembre.**  
Los lunes, 18:00-19:00.

En el curso trabajaremos los abdominales sin ejercer presión sobre el suelo pélvico.

\* El curso está dirigido a mujeres que han participado anteriormente. A partir de enero se ofrecerá el curso para principiantes.

# Boxeo

Ixa Rodriguez

**Urriak 3, 10, 17, 24, 31, azaroak 7, 14, 21 eta 28 (9 saio)**

Astearteak, 10:30-11:30

Boxeori buruzko mito ugari dago. Hala eta guztiz, gero eta emakume gehiagok praktikatzen dute kirol hau. Boxeo ikastaro honetan, kirol honekin lehenengo kontaktua eginez, emakumeok indartsuak garela frogatuko dugu, geure buruari jarritako erronkei aurre eginez eta autodefentsan sakonduz.

---

**Boxeo.** 3, 10, 17, 24, 31 de octubre y 7, 14, 21 y 28 de noviembre. Los martes, 10:30-11:30

Hay muchos mitos sobre el boxeo, pero cada vez más mujeres practican este deporte. Este curso de boxeo, servirá para conocer este deporte y demostrar que las mujeres somos fuertes, afrontando los retos que nos hemos planteado y profundizando en la autodefensa.

# Autoestima y empoderamiento

Pepa Bojó Ballester

**Urriak 3, 10, 17, 24, 31, azaroak 7, 14, 21, 28 eta abenduak 5, 12, eta 19 (12 saio)**

Astearteak, 15:00-17:00

## Gaztelaniaz

**Autoestima eta ahalduntzea.** Autoestima ezinbesteko zutabea da ahalduntze prozesuetan. Tailerra tresna izango da, besteak beste, emakumeen autoestima nola eraikitzen den ulertzeko, elkar gehiago ezagutzeko, geure burua onartzen eta norbere buruekin harreman osasuntsuak sortzen ikasteko.

---

Taller en castellano. **3, 10, 17, 24, 31 de octubre, 7, 14, 21, 28 de noviembre y 5, 12, y 19 de diciembre (12 sesiones).** Los martes, 15:00-17:00.

La autoestima es un pilar fundamental sobre el que se apoya el proceso de empoderamiento. El taller es una herramienta para comprender cómo se construye la autoestima en las mujeres, detectar los mensajes recibidos que nos ayudan y empoderan y los que no, conocernos más, saber qué recursos, fortalezas y habilidades tenemos, aprender a aceptarnos y a generar una sana relación con nosotras mismas.

# Txalaparta ikastaroa

Nagore Etxabe Etxabe

**Urriak 3, 17, 31, azaroak 14, 28 eta abenduak 12 (6 saio)**

Astearteak, 17:30-18:30 (jarraipena) eta 18:30-19:30 (hasiberriak)

Ttakunaren erritmoa ikasi edo hobetu nahi baduzu, etor zaitez makilen elkarrizketara.

---

**Curso de Txalaparta. 3, 17, 21 de octubre, 14, 28 de noviembre y 12 de diciembre (6 sesiones).**

Los martes, 17:30-18:30 (continuación) y 18:30-19:30 (principiantes).

Ven si quieres aprender o mejorar el ritmo del "ttakun".

# Batukada feminista

Ainara Sarasketa Alberdi eta Arantza Albizu Escobar

Urriak 11, 25, azaroak 15, 29 eta abenduak 20 (5 saio)

Asteazkenak, 18:00-20:00

Ikastaroaren helburuak emakumeon arteko harremanak eta elkartasuna sustatzea, musikaz gozatu eta gozaraztea, eta irudimena eta sormena garatzea dira, besteak beste. Horrez gain, autogarapena eta taldekako jabetzea bultzatzea, emakumeok kulturaren dugun parte hartzea indartzea, eta emakumeok nahiz feministek ikusiak eta entzunak izatea esparru publikoan.

---

**Batucada feminista.** 11, 25 de octubre, 15, 29 de noviembre y 20 de diciembre (5 sesiones). Los miércoles, 18:00-20:00

Los objetivos del curso son fomentar las relaciones y la solidaridad entre las mujeres, y disfrutar y hacer disfrutar a través de la música.

# Kosmetika naturaleko tailer praktikoak

Itziar Etxeberria 'Biotxik'

Urriak 24, azaroak 7, 21, eta abenduak 5 eta 19 (5 saio)

Astearteak, 18:00-19:30

## Euskaraz

Kosmetika eta higiene pertsonaleko produktuak egiteko interesa duten pertsonentzako tailer praktikoa da.

Kosmetika naturalaren onurez informatu eta higiene pertsonalerako beharrezko produktuak etxean nola prestatu landuko dira. Hau guztia, fabrikazio-metodo tradizionalak eguneratuz eta ingurumena eta natura errespetatuz.

---

**Talleres prácticos de cosmética natural.** Taller en euskera.

Se trata de un taller práctico para personas interesadas en elaborar sus productos de cosmética e higiene personal. Se tratará de informar sobre los beneficios que de la cosmética natural y cómo preparar en casa los productos necesarios para la higiene personal. Todo ello actualizando los métodos tradicionales de fabricación, y respetando el medio ambiente y la naturaleza.



# Danza movimiento terapia

Mari Paz Ojeda

**Azaroaren 13an hasita, maiatza bukaera arte**

Astelehenak, 18:00-19:00

**Gaztelaniaz**

**Dantza-mugimendu terapiak** dantza eta mugimendua txertatzen ditu prozesu psikoterapeutikoan, norbanakoaren integritate fisiko, korporal eta emozionala bermatzeko. Pertsonen gatazka emozional edota psikologikoei aurre egiteko aukera ematen du terapia adierazkor honek.

\*Bakarkako saioak egiteko aukera ere badago. Interesatuz gero, jarri gurekin harremanetan.

---

**Taller en castellano. Desde el 13 de noviembre hasta finales de mayo.** Los lunes, 18:00-19:00

La DMT se define como el uso de la danza y el movimiento, dentro de un proceso psicoterapéutico, para la integración física, corporal y emocional del individuo. Es una terapia expresiva que permite abordar los conflictos emocionales y/o psicológicos de las personas.

\*También existe la posibilidad de realizar sesiones individuales. Si estás interesada ponte en contacto con nosotras.

# elkarguneak



Talde hauek ikasturte osoan elkartu ohi dira, egutegi eta taldekide iraunkorrek. Parte hartu nahi izanez gero, edo bestelako elkargunerik sortu nahi izatekotan, jarri harremanetan Zumaiako Emakumeon\* Etxearekin.

Estos grupos suelen reunirse durante todo el curso, con calendario y compañeras permanentes. Si quieres participar en alguno de estos grupos o crear un nuevo grupo, ponte en contacto con Emakumeon\* Etxea.

# Banan Coffee

## **Emakume bananduentzako saioa**

Tertulia konplizeak, itxitako etaparen ingurukoak elkarbanatu eta aldi berriei atea zabaltzeko.

Taldea osatzen bada, urritik aurrera profesional batek gidatuko ditu saioak. Interesatuz gero, jarri gurekin harremanetan.

---

## **Sesión para mujeres separadas**

Tertulias en un ambiente de complicidad para compartir reflexiones sobre etapas ya cerradas y abrir ventanas a nuevos tiempos.

A partir de octubre una profesional dinamizará las sesiones. Si estás interesada ponte en contacto con nosotras.

# Pala taldea

## **Asteartero, Sagarbideko frontoian, 18:00**

Giro atseginean jarduera fisikoa egiteko aukera bikaina eskaintzen digu espazio honek. Asteartero 18:00etan Sagarbideko frontoian elkartzen gara Zumaiako zenbait emakume\*, palan jokatzeko. Parte hartzeko ez da beharrezkoa aurrez izena ematea.

---

## **Todos los martes, en el frontón de Sagarbide, 18:00**

Este espacio ofrece una excelente oportunidad para realizar actividad física en un ambiente agradable. Nos reunimos todos los martes a las 18:00 horas en el frontón de Sagarbide. Para participar no es necesario inscribirse.

# Korrika taldea

## **Asteazkenero, 18:30**

Elkarrekin korrika egitera animatzeko taldea da, emakumeak jarduera fisikoan eta kirol arloan ahalduntzeko helburua duena. Baita beste emakume batzuekin batera, norberaren ahalmenak, mugak, erronkak eta zailtasunak partekatzea ere. Finean, emakumeon autonomia, konfiantza eta bizitzak hobetzeko bide izan nahi du taldeak.

Azpimarratu nahi dugu parte-hartzaileek ez dutela korrika egiteko ohiturarik izan behar, aski da ahalmen, nahi eta gogoia izatea.

---

## **Todos los miércoles, 18:30**

Es un grupo para animar a las mujeres a correr en grupo. El objetivo es empoderar a las mujeres en la actividad física y en el ámbito deportivo, y poder compartir con otras mujeres las propias capacidades, limitaciones, retos y dificultades. En definitiva, el grupo pretende ser un medio para mejorar la autonomía, la confianza y las vidas de las mujeres.

Queremos subrayar que no es imprescindible que las participantes tengan la costumbre de correr, basta con tener capacidad y ganas.

agenda

# Adineko emakume askotarikoen topaketa

Irailak 16, larunbata, 11:30-13:30

Topaketa hau adineko emakume migratuen eta bertakoen arteko hartu-eman izango da, eta hiru ardatzen gainean jardungo dugu:

- Bizitzaren jasagarritasuna
- Era askotako indarkeriak
- Ongizate psiko-emozionala


# Encuentro entre mujeres mayores diversas

16 de septiembre, sábado, 11:30-13:30

Encuentro entre mujeres mayores diversas. La actividad propuesta será un intercambio entre mujeres migradas y autóctonas sobre tres ejes:

- Sostenibilidad de la vida
- Violencias múltiples
- Bienestar psico-emocional

www.zinegoak.com



**ZINEMA ZUZENDAKETA**

**ZUMAIA AITA MARI ZINEMA**

**> IRAILAK 21 SEPTIMBRE 19:30**  
FILM LUZEAREN SAIOA  
PROYECCIÓN LARGOMETRAJE  
"CASA SUSANNA" (SEBASTIEN LIFSHTZ)

**Bilboko LGTBIO+ 20. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia**  
06-06/07-01

**20º Festival Internacional de Cine y Artes escénicas LGTBIO+ de Bilbao**  
26-06/01-07

**20th Bilbao International LGTBIO+ Film and Performing Arts Festival**  
26-06/01-07

**Asociación ZINEGOAK ELKARTEA**

**berdindu!**

**eitb**

**Leguntzaileak Colaboradores**

**Zumaldea Udaleko ZUMAIA BIZITZEKO DA**

**Bizkaia Bilbo FILMIN**

**Edoskitze tailerra,  
Txiribuelta elkartearen  
eskutik**

Oihana Aizpurua Perez

**Irailak 26, asteartea, 18:00**

**Euskaraz**

---

**Taller de lactancia materna  
de la mano de la asociación  
Txiribuelta**

Oihana Aizpurua Perez

**26 de septiembre, martes, 18:00**

Taller en euskera

**Zumaiako  
Emakumeon\*  
Etxearen  
2. urteurren  
festa**

FIESTA DEL SEGUNDO ANIVERSARIO

Urriak 1, igandea,  
12:30etik aurrera

Irene Iruretaren **muralaren aurkezpena**

***Ez da kasualitatea bertso-saio musikatua***

Bertsolariak: Uxue Alberdi, Miren Amuriza,

Onintza Enbeita eta Oihana Iguaran

Musikariak: Oihana Rodriguez eta Ixak Arruti

**Zatoz gurekin ospatzera!**

¡Ven a celebrarlo con nosotras!

# Berdintasun Foroa

## Noiz?

**Urriak 4 eta Abenduak 13**

Asteazkenak, 18:00

## Non?

Zumaiako Emakumeon\* Etxean

## Zertarako?

- Berdintasunaren alde bideak irekitzeko, Zumaiako Udalean eragiteko eta politika feministak sustatzeko.
- Emakumeen egoerari buruz hausnartzeko eta aldaketak proposatzeko.
- Zeure buruaren jabe izateko.
- Emakumeon\* presentzia eta parte-hartzea areagotzeko.
- Zure proposamenak jasotzeko.



## Mapy.cz aplikazioa erabiltzen ikasteko ikastaroa

Ana Egaña Arruti, Ines Aseguinolaza Iparragirre eta Ihintz Linazisoro Garate

**Azaroak 2, osteguna, 18:00**

Helburua da norberak erabakitako lekura autonomia osoz joateko ibilbideak diseinatzeko ikastea eta baliabideak eta gaitasunak eskuratzea.

---

**Curso para aprender a usar la aplicación**

**Mapy.cz. 2 de noviembre, jueves, 18:00.**

El objetivo es aprender a diseñar itinerarios para desplazarse con total autonomía al lugar deseado y adquirir recursos y competencias.

## Mendi-irteerak

Inguruko mendiak elkarrekin ezagutzearen plazera partekatzen jarraituko dugu.

**Excursiones al monte.** Seguiremos compartiendo el placer de conocer en grupo las montañas del entorno.

**Irailak 10, igandea:** Aratz

**Urriak 28, larunbata:** Unanua-Beriain

**Azaroak 19, igandea:** Hirumugarrieta

**Abendua 16, larunbata:** Otaerre-Sesiarte

# 80 amandre

## Helduentzako ipuinak

Dorleta Kortazar Alkoz

Urriak 18, asteazkena, 18:30

Euskaraz

80 amandre behar omen dira aintzinako emakumeak egungoekin lotzeko, hori zioen behintzat Jorge Oteiza handiak; 80 amandre besterik ez, antzinaroa gaur egunarekin lotzeko. Nik 4 amandre nahikoa izan ditut munduan nire txokoa aurkitzeko, 4 amandre besterik ez, ipuin bihurtu eta saio honetan elkartu ditudanak. Ametsak, desioak, lana eta tristurak mototsean kiribildu eta munduari irribarre egiten ikasi duten emakumeen istorioak dira hauek. Esku zailduak, sabel puztuak, begirada galduak, eta batez ere irribarrea begietan duten amandreak, amamak, amonak, amatxiak, amumak... Finean, nire amandreak zure amandreak direlako.

---

**80 amandre.** Cuentos para adultos en euskera.  
18 de octubre, miércoles, 18:30

Dicen que hacen falta 80 abuelas para unir a las mujeres antiguas con las actuales, para conectar la antigüedad con la actualidad.

A mí me han bastado 4 abuelas para encontrar mi rincón en el mundo, sólo 4 abuelas, que he convertido en cuentos y he juntado en esta sesión.





# Indiako emakume alargunen bizitzei eta erronkei buruzko jakintza-trukeak

## Hitzaldia

Alboan fundazioa

**Urriak 26, osteguna, 18:30**

**Gaztelaniaz**

Indian emakumeen alarguntasunak diskriminazio gehigarri ugari eragiten ditu, eta saio honetan Indiako emakume alargunen bizitza- eta antolaketa-esperientziak ezagutuko ditugu. Indiako emakume baten bisita izango dugu, Indiako hegoaldeko Tamil Nadu herriko Emakume Alargun eta Bananduen Mugimenduarekin batera dabilena. Saioan haien eta gure testuinguruaren arteko esperientzien loturei buruz hitz egingo dugu, eta haien erronkei, borrokei eta ametsei buruz ere bai.

---

### **Intercambios de saberes sobre las vidas y retos de las mujeres viudas en la India.** Charla en castellano.

**26 de octubre, jueves, 18:30**

En esta sesión nos acercaremos a conocer y dialogar sobre las experiencias de vida y de organización de mujeres viudas en India, país en el que la viudedad de las mujeres conlleva una multiplicidad de discriminaciones añadidas. Contaremos con la visita de una mujer india que acompaña al Movimiento de Mujeres viudas y separadas de Tamil Nadu, sur de India, que nos compartirá y con la que dialogaremos sobre las conexiones de experiencias entre su contexto y el nuestro, sus desafíos, luchas y sueños.



KALE  
edo  
BALE

ahaidetasun  
feministetara!

URRIAK 7: Azpeitia.

Amatasunen ondoezak eta erresistentziak

URRIAK 21: Zumaia.

Ahaidetasunen fikzioak eta utopiak

AZAROAK 18: Orereta.

Absentziak eta eraldaketak

## Urriak 21, larunbata: Zumaia

# Ahaidetasunen fikzioak eta utopiak

09:00

Ate irekiera

09:30

Ongietorria

09:45

*Ama ta asunak* erakusketa  
eta dokumentala:

June Baonza

10:45

Kafea

11:15

Bestelako ahaidetasunak

mahai-ingurua:

Jule Goikoetxea,

Elixabete Imaz

13:00

Itxiera

• AZAROAK 25 •

# INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA

• 25 DE NOVIEMBRE •

# DÍA CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

# eskola feminista

Eskola Feministak hausnarketarako, autonomia indartzeko, sareak sortzeko, emakumeak beren eskubideen jabe egiteko, pertsonalki eta kolektibo modura eraldaketa sozialean parte hartzeko, bizitzari aurre egiteko indarra eta konfiantza izateko...

La Escuela Feminista pretende ser un espacio de reflexión, de fortalecimiento de la autonomía, de creación de redes, de apropiación por las mujeres de sus derechos, de participación personal y colectiva en la transformación social, de fuerza y confianza para afrontar la vida, etc.



# Ekonomia feminista

## Hitzaldia

Uzuri Aboitiz Hidalgo

**Irailak 28, osteguna, 18:30**

**Euskaraz**

Ekonomiaz hitz egiten denean, zertaz ari gara? Eta zer dio feminismoak ekonomiaz? Oinarrizko kontzeptuak ulertu eta ezagutuko ditugu, eta ikuspegi kritiko batetik hitz egin eta hausnartuko dugu zaintzaz, bizitzaren sostenguaz, krisiaz, bizitzaren prekarietatez eta alternatibez.

---

**Economía feminista.** Charla en euskera. **28 de septiembre, jueves, 18:30**

¿Qué es eso de la economía? ¿Y la economía feminista? Vamos a entender conceptos básicos y conocer la crítica y aportaciones del feminismo sobre la vida, los cuidados, la crisis, la precariedad y las alternativas propuestas

# Puta zikinak

## Liburuaren aurkezpena

Katakrak argitaletxea

Urriak 5, osteguna, 18:30

Euskaraz

“Prostituzioak adiera ugari ditu, eta sakoneko emozioak azaleratzen ditu. Batez ere, inoiz sexurik saldu ez dutenei gertatzen zaie hori, sexu-salmenta modu sinbolikoan ulertzen dutenei. Prostituzioaren ideiak imanak bezala erakartzen ditu lanari, maskulinitateari, klaseari eta gorputzei buruzko galderak; gaiztakeria arketipikoari eta zigorrari buruzkoak; nork ‘merez’ duen zer; zer esan nahi duen komunitate batean bizitzeak; zer esan nahi duen norbait komunitate horren mugetatik at bidaltzeak. Prostituzioarekiko jarrerek lotura handia izan dute beti arrazarekin, mugekin, migrazioarekin eta nazio-identitatearekin, batzuetan ageriki, maiz ezkutuan. Sexu-lana ganbera korazatu bat da, non gizarteak bere beldur eta kezkarik larrienak gordetzen baititu”.

Juno Mac eta Molly Smith

---

**Presentación de libro *Putá Zikinak*.** En euskera.  
5 de octubre, jueves, 18:30

Juno Mac  
Molly Smith

# PUTA ZIKINAK

Sexu-langileen eskubideen  
aldeko borroka

Itzulpena:  
Amaia Astobiza Uriarte

# La violencia de género contra las mujeres mayores: una problemática invisibilizada

Hitzaldia

Monica Ramos Toro

**Azaroak 16, osteguna, 18:30**

**Gaztelaniaz**

**Adineko emakumeen aurkako genero-  
indarkeria: ikusezin bihurtutako problematika.**

Mónica Ramos, antropologo eta gerontologoa, adineko emakumeen aurkako tratu txarren eta genero indarkerian aditua da. Adineko emakumeen kontrako biolentzia ezkutuan dagoen errealitate bat da eta hitzaldian problematika hau ezagutu eta mahi gainean jartzeko aukera izango dugu.

---

**Charla en castellano. 16 de noviembre, jueves,  
18:30**

Mónica Ramos es antropóloga y gerontóloga especializada en malos tratos a personas mayores y violencia de género. La violencia contra las mujeres mayores es una realidad que no se ve y en la charla tendremos la oportunidad de hablar y evidenciar esta problemática.



# zerbitzuak servicios

## Etxearen ordutegia

Astelehen, astearte eta ostegunak 09:30-12:30 / 17:00-20:30

Asteazkenak 09:30-20:30

Ostiralak 09:30-12:30

Lunes, martes y jueves 09:30-12:30 / 17:00-20:30

Miércoles 09:30-20:30

Viernes 09:30-12:30

## Harremanetarako

633 43 27 62 (telefonoa eta whatsapp)  
info@zumaiakoemakumeonetxea.eus

www.zumaiakoemakumeonetxea.eus

Facebook: Zumaiako Emakumeon Etxea

Instagram: @zumaiakoemakumeonetxea

## Arreta eta bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera, eta Emakumeon\* Etxeko baliabideetara edo bestelakoetara bideratzea.

### Atención y derivación

Información, orientación y acogida, y derivación a recursos propios o externos

## Bidelagun zerbitzua

Norberaren zalantzak argitzeko edo bidelagun bat edukitzeko, informazio eta orientazio zerbitzua, psikologikoa eta judiziala.

### Servicio Bidelagun

Con el objetivo de resolver dudas y tener un apoyo profesional, servicio de información y orientación psicológico y jurídico.

## Ordenagailu eta internet zerbitzua

Aste osoan etxearen ordutegian. Doako erabilera.

### Servicio de ordenador e internet

Durante la semana en el horario de la casa. Uso gratuito.

## Liburutegi zerbitzua

Bertako liburutegi feministatik liburuak maileguan har daitezke.

### Servicio de biblioteca

Se podrán coger prestados libros de la biblioteca feminista.

AURREZ TXANDA HARTUTA / CON CITA PREVIA

## Malen Etxea elkarte

- Aholkularitza atzerritartasun eta nazionalitate izapideetan.
- Etxeko langileentzako aholkularitza. Emakume\* langileen eskubideak eta bermeak.

### Asociación Malen Etxea

- Asesoría en trámites de extranjería y nacionalidad.
- Asesoría para trabajadoras de hogar. Derechos y garantías de las trabajadoras.

Basadi 14, behea • 653 729 117  
asesoria.juridica@malenetxea.org

AURREZ TXANDA HARTUTA / CON CITA PREVIA

## Ikasketen homologazioa BIDEZ BIDE elkarte

“Iguálate” programaren bidez, atzerrian egindako ikasketen tituluak baliokidetzeko aholkularitza eta laguntza.

### Homologación de estudios, Asociación Bidez Bide

A través del programa “Iguálate”, se ofrece asesoramiento y asistencia para la convalidación de títulos de estudios realizados en el extranjero.

AURREZ TXANDA HARTUTA / CON CITA PREVIA

## Edoskitze aholkularitza

### Oihana Aizpurua Perez

Amagandiko edoskitzean kontuan izan beharreko gakoak ulertzen lagunduko dizuegu eta haurraren oinarritzko elikadura egoki joan dadin sor daitezkeen arazoei irtenbidea bilatzen lagunduko dizuegu: mina, zartadurak, lanera itzulera...

### Asesoria de lactancia, Oihana Aizpurua Perez

Ayudaremos a entender las claves a tener en cuenta en la lactancia materna y a buscar soluciones a los problemas que puedan surgir: dolor, grietas, vuelta al trabajo, etc.

AURREZ TXANDA HARTUTA / CON CITA PREVIA

## Sexu aholkularitza

### Aholkusex

Asesoramiento en sexología, Aholkusex

## Autozaintza taldea

Indarkeria matxista jasan duten emakumeentzat taldeko saioak gaian aditua den profesional batek bideratuta.

### Grupo de autocuidado

Sesiones grupales para mujeres víctimas de violencia machista dirigidas por una profesional experta en la materia.

AURREZ TXANDA HARTUTA / CON CITA PREVIA

## Haurdunaldiko eta jaiotza inguruko heriotzen doluaren inguruan hitz egiteko espazioa

Espacio para hablar sobre el Duelo gestacional, perinatal y neonatal



# Zumaiako Emakumeon\* Etxea

Zumaiako  
Udala



ZUMAIA  
BIZITZEKO  
DA

LAGUNTZAILEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa